

## PRENTSA AGIRIA

# Linterna laxatzea

## Abenduaren 9 eta 16, larunbatak praktikoki

**Ohidurako bi linterna laxatzeak antolatzen ditu Baiona Hiriak, hiri barnera hurbiltzeko zenbait aholku emanaz aldi berean, egun hori ahal bezain lasaiki goza dezazuen. Kari horretara, zirkulazio mugatze neurri eta aparkatzeko baldintza bereziak ezarriak izan dira gertakizun hauek ahal bezain ongi iragan daitezten. Garraio publikoak ez dira hiperzentrotik pasako 16:00 eta 20:00ak bitartean. Linternen gualdi aitzineko egunean, animazio eta ospakizun ugari proposatuak izanen zaizkie bisitari eta Baionarrei.**

Beherago, animazio hauetara garai haietan errazki hurbiltzeko laburbilduma erabilgarria proposatzen dizue Baiona Hiriak. Arratsalde hastapenetik beretik animazioez eta saltegiatiko karrikez gozatzea aholkatzen du Hiriak. Linterna laxatzeei lotu animazio bereziak eskainiak izanen dira 15:30etatik aitzina Merkatu estliko plazan, bertan Bizar Zurirekin bildu eta argazki bat egiteko parada ukaiteko leku nagusia baita. Programa oparoa proposatua da egun osoan gaindi Errota Handia, ttipi eta handientzako ikusgarriekin, Eguberriko merkatua eta mokofinen herrixkarekin, ibilaldiekin, ateleriekin, kontzertuekin...

### LINTERNA LAXATZEEI DAGOKIENEZ

**Abenduaren 9an, larunbatarekin 19:30etan – kolore anitzeko linterna laxatzea**

**Abenduaren 16an, larunbatarekin 19:30etan – linterna xurien laxatzea**

#### Nola egin linterna bat eskuratzeko

Linterna bat eskuratzeko, hitzordua egunean berean, 15:30etatik aitzina Merkatu estaliko plazan. Linterna batez (gaiaren kolorekoa) eta Errota Handirako 2 txartelez osatu 8 €-ko pack bat proposatua da. Kopuru mugatua. Banatu linterna guzikiak % 100 biodegradagarriak dira (osaketa: irris hostozko paper azala, banbuzko uztai formakoa, erregailuaren sokazko lokarria).

Linternak irabazten ahal dira ere Hiriko abenduko egutegiarekin, sare sozialetan edo « Eguberri Baionan da » ekimenaren partaide den Urdin Irratia entzunez.

### ANIMAZIOEN SEGURTATZEARI DAGOKIONEZ

#### Asteburu guziez:

- **Edozoin ibilgailu aparkatzea debekatua izanen da** Dubourdieu kaian, Roquebert kaian, Bernadou karrikan, Jauréguiberry kaian, Chaho kaian, Pelletier karrikan, Kortsarioen kaian eta Marengo karrikan:
  - o 2023ko abenduaren 8, ostiraletik, 19:00etan, 2023ko abenduaren 10, igandera, 23:00etan,
  - o eta 2023ko abenduaren 15, ostiraletik, 19:00etan, 2023ko abenduaren 17, igandera, 23:00etan.
- **Baiona Handiko eta Baiona Ttipiko auzotegietan lurrera sartzen diren bornak ez dira apalduko:**
  - o 2023ko abenduaren 8, ostiraletik, 19:00etan, 2023ko abenduaren 10, igandera, 23:00etan,
  - o eta 2023ko abenduaren 15, ostiraletik, 19:00etan, 2023ko abenduaren 17, igandera, 23:00etan.

**Animazio guzietarako dispositibotik gain, segurtasun dispositiboaren indartze bat linterna laxatzeetarako abenduaren 9 eta 16an, larunbatarekin, 18:00 eta 22:00ak artean:**

- **Garraio publikoetako lineak desbideratuak izanen dira Euskaldunen plaza eta Baionako Tren geltokiko geldilekuen artean (zirkulazioa hetsia izanen da Gotorlekuaren plaza eta Askatasun plazaren artean), eta Marines hiribidetik, Henri-Grenet zubitik, Lesseps kaiatik, San Izpiritu zubitik edo Boufflers hiribidetik iraganen dira. Aldi bateko geldileku bat jarria izanen da San Izpiritu-Tren-Geltokian, Santa Urtsula karrikaren puntan. Kari horretara, ibilgailuei debekatua izanen zaie Santa Urtsula plazan eta Santa Urtsula karrikan. Argibideak txixtxak.fr-en edo Txixtxak aplikazioan.**
- **Ibilgailu orori (sokorri, segurtasun edo antolaketakez aparte) ondoko moldean ibiltzea debekatua izanen zaio:** Génie zubiaren gainean, Léon-Bonnat etorbidean, Azaroaren 11ko etorbidean, Gotorleku plazan, Leclerc Marexalaren etorbidean, Askatasun plazan, Bernède karrikan eta Marengo karrikan, baita garraio publikoei ere.



**APARKATZE ETA GARRAIO PUBLIKO ESKAINTZA**

- Txik Txak sarearekin eta bitarteko aparkalekuak eta auzotegietatik iragaiten diren Tram'bus T1 eta T2 lineekin. Euskaldunen plaza edo Tren Geltokiko geldilekuei lehentasuna eman linterna laxatze egunetan hiri barnera heltzeko.
- Aparkatzeko, 1. orena urririk da (oren bat eta erdi Laugan) hesiko edo azalerako aparkaleku guzietan (de Gaulle aparkalekuaz aparte).
- Aparkaleku estaliak usiaz kanpo irekiak izanen dira abenduaren 3, 10 eta 17an, igandearekin 10:00 etatik 18:00etara.
- Oroitzeko, karrikan aparkatzea urririk da larunbat arratsaldean, igandean eta besta egunetan.

Eguraldia txarra baldin bada linterna laxatze aldietan, ekimenaren biharamunera, igandera gibelatzea aitzin ikusten du Hiriak. Argibide zehatzak eskura dituzue linean [www.bayonne.fr](http://www.bayonne.fr) hiriaren internet gunean.

**Baiona hiriaren Eguberriko programa osoa eskura da linean frantsesez, euskaraz eta espainolez [noel.bayonne.fr](http://noel.bayonne.fr)-en.**

Baiona Hiriko prentsa harremana - 05 59 46 63 01 - [presse@bayonne.fr](mailto:presse@bayonne.fr)